

Egoera ahulenean dauden pertsonen Elikadura Laguntzeko Programaren (FEAD 2020) bigarren fasea

Arabako Gurutze Gorriak 40.000 kilo elikagai baino gehiago banatuko ditu

- Gurutze Gorriak bere konpromisoari eusten dio, COVID-19k pandemiaren aurretik lan egiten zuen pertsona ahulenekin.
- Programa horren % 85 egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko Europako Funtsak (FEAD) finantzatzen du, eta % 15 estatuko aurrekontuak.

Arabako Gurutze Gorriak 40.055 kilo elikagai banatuko ditu Oionen, Amurrion eta Gasteizen datozen bi hilabeteetan pertsona ahulen artean, Elikagaien Laguntzarako 2020 Programaren bigarren fasean. Programa horren % 85 Pertsona behartsuenentzako Europako Laguntza Funtsak (FEAD) finantzatzen du, eta % 15 estatuko aurrekontuak, Araban egoera ahulean dauden 1.953 pertsonengana iristeko.

Nabarmentzekoa da % 10 igo dela probintzian elikadura-laguntza hori eskatzen duten pertsonen kopurua, COVID-19 pandemiaren ondorioz bizi dugun larrialdi sozial eta ekonomikoko egoera dela eta.

Gurutze Gorriak Araban duen biltegiatze-zentrotik banaketarako elkartutako 9 erakunderi banatuko zaizkie elikagaiak, eta horiek egoera ahulenean dauden pertsonen helaraziko dizkiete, erraz presta dezaten janari oso bat pertsona batentzat edo hainbat kide dituen familia batentzat, haurtxoak barne.

Elikagaiak oinarritzakoak dira, ez dira galkorrak, garraiatzeko eta biltegiatzeko errazak dira. Aurtengo 'Janari-saskiak' honako produktu hauek izango ditu: babarrun egosiak, jateko pasta makarroia, kontserbako barazkien mazedonia, kontserbako fruta, atuna eta sardinak kontserbetan, txerri-kontserba (magro), txokolate-irabiakiak, arroz zuria, UHT esnea, tomate frijitua, gailetak, fruta- eta oilasko-tak eta oliba-olioa.

Elikagai bereziki elikagarriak dira, helduen eta, bereziki, adingabeen beharrak asetzen lagunduko dutenak. Saski hori Elikagaien Bankuen Federazioaren, Gurutze Gorriaren eta Ministerioetako nutrizionisten laguntzarekin egin da.

Estatuan

Espainiako Gurutze Gorriak 2.400 erakunderekin baino gehiagorekin egingo du lan, eta, guztira, erakundeak 747.000 pertsonari baino gehiagori banatuko dizkie elikagaiak (Gurutze Gorriaren egoitzetan egiten da banaketa, bai erakundeei bai partikularrei); **iaz baino % 20 pertsona gehiagok eskatzen dute laguntza hori**. Horrek esan nahi du bi erakundeen artean guztira 1.500.000 pertsona baino gehiago artatuko direla.

Estatuan 17,5 milioi kilo elikagai banatzen dira guztira.

Elikatzen laguntzeko programari buruzko informazio gehiago (gastelaniaz):

https://www.fega.es/PwfGcp/es/accesos_directos/plan2010_ayudas/index.jsp

Álvaro García Serrano

Marka eta Komunikazioaren Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria | Euskadiko Gurutze Gorria

Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | comunicacionalava@cruzroja.es

Gure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.